



**ENERGIA ELEKTRIKOA SALTZEKO AGENTE ORDEZKARIAREN ZERBITZUA KONTRATATZEKO
ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN PLEGUAREN KARATULA. ESPEDIENTE-ZK.: 3278**

Harmonizatuko araubidearen menpe dagoen kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Aitor Ezeiza Virumbrales
4.- Kontratazioko Zuzendariordetzako harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono- zk.:94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: ENERGIA ELEKTRIKOA SALTZEKO AGENTE ORDEZKARIAREN ZERBITZUA. 2.- Bete beharreko premiak Elektrizitatea saltzeko, agente ordezkaria eduki behar da. Legezko betebeharra da. Bat izendatu ezean, ekoizleari azken baliabideko ordezkaria esleitu zaio. Era berean, azken baliabideko ordezkariaren prezioa eta baldintzak disuasiozkoak direnez (askoz garestiagoak direlako), ekonomikoki ere justifikatzen da zerbitzu hori kontratatzea azken baliabideko ordezkaria saihesteko. 3.- Lotetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa: Kontratu hau esleipendun bakar batentzat proposatzeko arrazoia da agente ordezkari bakarra izan daitekeelako jabetza bererako ordezkaturako solairu guztietarako.
4.- CPV: CPV kodea: 71314200-4 Deskribapena: Energiaren kudeaketarako zerbitzuak
5.-Aldagaiak edo alternatibak onartzea: ☐ BAI ☒ EZ
6.- Izaera juridikoa ☒Administratiboa ☐ Pribatua



C.-KONTRATUAREN PREZIOA	
1.-Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)	BERROGEITA HAMASEI MILA (56.000,00) EURO
2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: HIRUROGEITA HAMAR MILA (70.000 €) Euro Loteak: ☐ BAI ☒ EZ	
3.-Prezioa zehazteko sistema: ☐ Oroharreko prezioa ☒ Aleko prezioak	
4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-esleipena: Kontratuaren urteko aurrekontuak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa hauek dira: 2026. urtea: 227.07.169.31 partida 7.000,00 euro, BEZik gabe 2027. urtea: 227.07.169.31 partida 14.000,00 euro, BEZik gabe 2028. urtea: 227.07.169.31 partida 14.000,00 euro, BEZik gabe 2029. urtea: 227.07.169.31 partida 14.000,00 euro, BEZik gabe 2030. urtea: 227.07.169.31 partida 7.000,00 euro, BEZik gabe	
5.-Prezioak berrikustea: ☐ BAI ☒ EZ	
6.-Kanpoko funtsekin finantzatzea: ☐ BAI ☒ EZ	
7.- Ordaintzeko modua: Arruntak. Hileko ziurtagiria. Unitate osoak edo ehunekoak ziurtatuko dira, dagokionaren arabera	
8.- Ordainketak kontura: EZ	

D.-KONTRATUAREN EPEA
1.-Iraupen osoa LAU (4) URTE
2.- Epe partzialak. ☐ BAI ☒ EZ
3.- Luzapena ☒ BAI ☐ EZ Gehienez ere luzapen BAT (1), urtebetekoa
4.- Berme-epea: Ez da aplikatu behar
5.- Kontratua gauzatzeko tokia: Adjudikaziodunaren eta Ur Patzuergoaren instalazioak
6.- Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK	
Behin betiko bermea: % 5	Zenbatekoa: Adjudikazioa
☐ Berme osagarria:	Zenbatekoa:

F.-KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA
Urteko negozio-bolumena: amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokio, eta kontratuaren urteko batez besteko kuota bezainbeste izan beharko da gutxienez behin: (14.000,00 euro)



G.- KAUDIMEN TEKNIKO ETA PROFESIONALA

Kontratuaren xede diren zerbitzu edo lanen izaera bera edo antzekoa duten zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, gehienez ere azken hiru urteetan, zenbatekoa, data eta hartzailea, publikoa edo pribatua, adierazita, baldin eta gauzatze handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren batez besteko urtekoaren % 70 edo handiagoa bada.

LANBIDE-GAIKUNTZA

Energia elektrikoa saltzeko agente ordezkaria dela egiaztatzen duen dokumentazioa.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, hautazkoa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentazioa.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEN BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailleak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da l. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa izan ezik.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

a) Prezioen zerrenda.

Kontratuaren urtebeteko neurketak eta unitateak jasotzen dituen kalkulu-orria gehitu da. Fitxategiaren izena da "Anexo_Oferta_economica_rev01.xlsx". Lizitatzailleak prezio-unitarioak eta eskaintzaren emaitza osoa aurkeztu behar ditu taula honetan, eta "irizpide objektiboak" erlaitza ere bete behar du.

Kontratua adjudikatzeko, eskaintzaren txantiloiko 1 ("Eskaintza - 1 urte" liburua) eta 2 ("Irizpide objektiboak" liburua) batu beharko dira. Azken batean balio txikiena duen eskaintza adjudikazioduna izango da ("Oferta - 1 año" liburuko F2 gelaxken eta "Criterio objetivo" liburuko F2 gelaxkaren batura).

Aurkeztutako eskaintza urtebeterako izango da, eta, gero, kontratuaren zenbatekoa kontratuaren iraupenarekin biderkatu beharko da.

I.- ESKAINTZAK EGITEKO LEKUA ETA EPEA

1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa

2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik administrazio-baldintza berezien pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):

3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ

Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:

<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>



J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Presidente:

D. Xabier Zubiaur Agirre.

Mahaikideak:

Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Xabier Orue Moro jauna.

Itziar Zarate Urrutia andrea.

Gerardo Latorre Pedret jauna.

Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Kontratua prozedura ireki bidez adjudikatuko zaio preziorik baxuena duen eskaintza aurkezten duen lizitatzailerari. Izan ere, eman beharreko zerbitzuaren ezaugarriak direla-eta, adjudikatzeko irizpide erabakitzaile bakarra da.

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:

- Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizarteratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.
- Enpresako langileen artean aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duena.
- Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.
- Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Ohi baino baxuagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat ohi baino baxuagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzailerak bakarria dagoenean eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino 25 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Bi lizitatzailerak daudenean, beste eskaintzaren aldean 20 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Hiru lizitatzailerak daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoak direnean. Hala eta guztiz ere, batezbestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batezbestekoa baino 10 ehuneko-puntu handiagoa bada eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokotzat joko da aldea 25 ehuneko-puntu baino handiagoa bada.
- Lau lizitatzailerak edo gehiago daudenean aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoa direnean. Dena den, horien artean batez bestekoa 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan gainditzen duten eskaintzak badaude, batezbestekoa kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarria izango da ausarkeria-atalase berria ezartzea eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatu da.

Talde bereko enpresen eskaintzak aurkezten badira, baxuegiak izateagatik susmagarriak diren eskaintzak identifikatzeko araubidean, bakar-bakarrik hartuko da kontuan eskaintzarik baxuena, eskaintza banaka edo taldekoak ez diren, baina aldi baterako elkarte gisa jarduten duten beste enpresa edo enpresekin batera aurkeztea gorabehera.

4.- Lizitatzailerak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea:



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Ez da aplikatu behar

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak.

M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

Adjudikaziodunak erreklamazioa egin beharko du sor daitezkeen neurketa-arazoengatik. Betebehar hori alde batera utziz gero, jabetza osoak galdutako zenbatekoaren adinako zehapena ezarriko zaio.

Informazioa behar bezala eta energia elektrikoaren ekoizpen-balioaren gaineko zerga edo ur kontinentalak erabiltzeagatiko kanona likidatzeko epean ematen ez bada, jabetzari eragiten dion kostuarekin zigortuko da.

% 5eko edo hortik gorako zehapena aplikatuz gero, kontratua deuseztatu ahal izango da.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da behar.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

Bai, hasierako ekarpena

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☐ BAI

☒ EZ



KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

- Fakturak behar bezala eta epean aurkeztu beharko dira. Energia elektrikoaren ekoizpen-balioaren gaineko zerga likidatzeko txostenak eta ur kontinentalak erabiltzeagatiko kanona (edo etorkizunean aplikatu beharreko beste edozein) epean aurkeztu beharko dira ere bai.
- Kostu gehigarririk gabe, adjudikaziodunak dagozkion erreklamazio guztiak egin beharko ditu instalazioen neurriarekin arazoak izateagatik

Kontratuaren neurketak

Kontratu-unitateak zerbitzuaren beharren arabera gauzatuko dira, eta, beraz, ez dago gutxieneko gasturik bermatuta.

Kontratuaren likidazioa:

Neurketak eta birfakturazioak denboran luzatzen direnez, kontratu honek bi likidazio izan beharko ditu, bata kontratua amaitu eta sei hilabete igaro baino lehen eta bestea hamazortzi hilabetera, beharrezkoa izanez gero.

Desbideratzeak

Desbideratzeak ez badaude behar bezala jakinarazita albaranetan, ziurtagiria atzeratzea ekar dezake, zuzendu arte. Gainera, egoera hori hiru hilabetez mantentzen bada, 250 euroko zigorra aplikatu ahal izango da atzeratutako aste bakoitzeko:

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Ordezkaria behar da. Kontratuaren teknikari nagusiak egin dezake lan hori.